

BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun, gizarte kontsumista batean bizi gara, non erosten dugun guztia zabarrontzira doan denbora tarte txikian. Gure etxeko zaborrontzietara bideratzen dena, gehienetan ez da ondo bereizten, adibidez plastikoa eta papera, edo organikoa eta errefuxa. Horregaitik, gure produktuak dagozkien edukiontzietan ez bereizteak sortzen duen kutsadura geldiarazteko, zabor adimendun baten ideia eta produktua planteatzen dugu. Honek zaborra bereizi egiten du, aurretik bereiztearen beharrik gabe. Horrela, norbaitek berziklatzen ez badu edo alderdi batean konfunditu egin bada, ez du besteen berziklatze lana kutsatuko maikinak zihurtatuko baitda banaketa egokian.

Gainerako zabor arruntetatik bereizten gaituena zaborra eta bere osagaiak automatikoki banatzeaz arduratzen den alderdi adimenduna da. Produktu honek berritasuna aparte eskaitzen duena da, lan errazketa argi bat da, bai biztanleen aldetik, bai zabor-biltzaileen aldetik ere. Honekin lotuta dagoen alderdi bat, erabilerraztasuna da, izan ere, botoiari eman hutsarekin, zaborra azkar banatzen da, praktikasun guztiarekin.

Zaborrontzi adimenduak diseinu garbia du, proiektuaren helburua islatuz, hau da, planeta garbitzea, herriko eta hirietako gure zabor nagusietan zaborra behar bezala bereizten hasteko. Tamainari dagokionez, ez dela oso nabarmena uste dugu, nahiz eta tamaina errealista eta pisutsua izan zabor kantitate handiekin eta material guztiekin zamatzeko, pisutsuenetatik arinenetara. Beraz, zaborrontzi adimendu honek metro bateko makina da, grisa eta beltza (erraz ez zikintzeko) 180kg pisatzen duena. Gure ikuspuntutik, arriskuen murrizketa nabarmen bat ematen da honi esker, nagusia aldaketa klimatikoari suposatzen dion geldialdia, txikia bada ere, eragin handia izango du etorkizun hurbilean. Hain zuzen ere, elementuen bereizketa honek errazten duelako produktu birziklatuak ekoiztea (arropa, ontziak, plastikoa...).

Produktuak eskuragarritasun murriztua du. Hau nagusiki bideratua dago udaletxe eta estatua, izan ere, gure helburua herrietan ipintzea da era ofizialean. Hala ere, enpresa pribatueie ere dago bideratua, zeintzuk gutxi batzuk izango dire produktuaren prezioarengatik.